

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN ORRIA, DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN KAFETEGIAREN ETA HORRI LOTURIKO GUNEEN USTIAPENERAKO OPERADOREA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Donostiako Victoria Eugenia antzokian kafetegiaren eta horri loturiko guneen ustiapena, orri honetan eta baldintza teknikoaren orrian jasotakoaren arabera.

Zehazki, esleipenduna behartuta egongo da behe oineko eta terrazako taberna kafetegiko zerbitzuak, eta antzokiko palkoen oinean edaritegi zerbitzuak egitera. Sotoan, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, Saren aurretiko eta idatzizko baimenarekin, bidezkotzat jotzen dituen ostalaritza zerbitzuak eskaini ahal izango ditu (adibidez, jatetxe edo pub zerbitzuak, kafe antzokikoak, etab.), jokoarekin lotutakoak salbuetsita (joko aretoak, bingoak, etab.).

Gainera, esleipendunak catering zerbitzuak egin beharko ditu antzokiaren eremuetan antolatzen diren gertakarietan, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SAK eskatzen dionean. Gertakariaren antolatzailea erakunde kontratugilea balitz, esleipendunak modu eskusiboan egingo du zerbitzua. Dena dela, gertakariaren sustatzailea hirugarren bat bada, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SAK ez du catering zerbitzuak esleipendunari kontratatzeke betebeharririk izango. Hala ere, ahal duen neurrian, zerbitzuen kontratazioa sustatzeko konpromisoa hartzen du.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua honako hauek arautuko dute:

- Ekonomia eta administrazio klausulen orriak eta baldintza teknikoaren orriak
- 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 lege-gintzako Errege Dekretuan onartutako Sektore Publikoko kontratuen legearen Testu Bateraginaren (aurrerantzean SPKLTB) 4.1.p) artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratua legearen esparrutik kanpo geratzen da; dena den, 4.2. artikuluari jarraiki, SPKLTBa erabiliko da zalantzak eta hutsuneak interpretatzeko.
- Zuzenbide pribatuko araubidea aplikagarria denean.

Aurrekoa alde batera utzita, SPKLTBa eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoaren kontratuei buruzko Legearen Erreglamentua aplikatzekoak izango dira orri honek eta Baldintza teknikoaren orriak testu arauemaile horietara berarariaz jotzen dutenerako.

3. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA (aurrerantzean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA) da erakunde kontratugilea.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIko Kudeatzailea da kontratazio-organoa.

4. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da.

Prozeduraren xedea izango da eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresaburua hautatzea, agiri honetan ezarritako balorazio irizpideen arabera

5. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartzen.

6. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: ekonomia eta administrazio agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

7. KONTRATUAREN IRAUPENA

10 urteko iraupena edukiko du kontratuak.

8. LOKALA

Esleipendunak ustiatuko dituen lokalak eta horien egungo egoera baldintza teknikoen agiriako **2. klausulan** adierazten dira.

Eskuragarri egongo den eremua erakusteko, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK banakako bisitaldiak antolatuko ditu eskatzen duten interesdunekin. Horretarako, eskaintzak aurkezteko epearen barruan, interesa duen edonork donostiakultura@donostia.org posta elektronikoko helbidera eskabidea bidali beharko du, eta bisitaldirako deia egingo zaio hurrengo hiru egunen barruan, posta elektronikoki bidez. Horretan, bisitaldiaren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

Instalazioak doan itzuliko dira, kalte-ordain eskubiderik gabe, edozein arrazoi dela eta kontratua iraungitzen denean, kontratistaren ez betetzeagatik hura aurretiaz deuseztatuz gero ere.

9. KANONA ETA ORDAINKETA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAri ordaindu beharreko kanonaren zenbatekoa zehazteko, esleipendunak fakturatutako urteko negozio zifra edo diru sarrerren bolumena (BEZ kanpo) hartuko da kontuan, honako tarte hauen arabera:

TARTEA	URTEKO DIRU SARREREN BOLUMENA (BEZa kanpo)	KANONA (BEZa kanpo)
0	899.999 euro arte (barne)	49.500 euroko finkoa
1	900.000 eta 999.999 euro bitartean (biak barne)	gutxienez % 5,5a urteko diru sarrerren bolumenarekiko
2	1.000.000 eta 1.099.999 euro bitartean (biak barne)	gutxienez % 6,0 urteko diru sarrerren bolumenarekiko

3	1.100.000 eurotik aurrera (barne)	gutxienez % 7,0 urteko diru sarreren bolumenarekiko
---	-----------------------------------	---

1., 2. eta 3. tarteetan, fakturatutako diru sarreren bolumenarekiko (BEZ kanpo), gutxieneko kanonaren ehunekoa gorantz hobetu ahal izango dute lizitatzailerak euren eskaintzetan.

Esleipendunaren negozio zifra edo diru sarreren bolumena, saldutako produktu edo ondasun guztiengatik eta gauzatu edo egindako zerbitzu guztiengatik lortutako prezioa (BEZa kanpo) da, edo kontratu honen esparruan egindako jardueretatik lortutako beste edozein.

Gainera, esleipenduna behartuta egongo da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI kontraprestazio bat ordaintzera kontratua gauzatzeko jadanik badauden eta beharrezkoak diren inbertsioengatik. Horien zenbatekoa 430.842 euro da (BEZa kanpo). Orri honetako 17. Klausulari jarraiki, 5 eguneko epean egin beharko du ordainketa, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN eskaera jasotzen duenetik hasita.

Ondorio horietarako, esleipenduna behartuta egongo da baldintza teknikoen agiriaren **5. klausulan** fakturazioarekin lotuta deskribatutako betebeharrak formalak eta informaziokoak betetzera. Gainera, funtsezko kontratu betebeharrak izango dira eta ez betetzea kontratua deuseztatzeak kausa izango da, SPKLTBaren 223 f) artikulua babespean.

Hileroko ordainketen bitartez ordainduko da kanona. Dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko 15. eguna baino lehen egingo da ordainketa. Emakidadunak ordaindu beharreko hileroko kanona kanon finkoa 12z zatitzearen emaitzazko kopurua izango da; hau da, 4.125 euro (BEZa kanpo).

Diru sarreren bolumena 900.000 eurokoa edo gehiagokoa bada (BEZa kanpo), dagokion doikuntza (hau da, diru sarreren bolumena dagokion tartean esleipendunak eskaintako ehunekoaz biderkatzearen emaitzazko kopuruaren eta kanon finkoaren arteko kendura) kontratuaren indarraldiaren urte bakoitzeko azken hilari dagokion fakturan likidatuko da.

Ordainketa VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN honako kontu korrante honetan egingo da: 2095 5381 15 1063470826.

10. KANONA BERRIKUSTEA

Kontratuaren indarraldia hasi eta bigarren urtetik aurrera, 0 tarteko gutxieneko esleipen kanona eta 1,2 eta 3 tramoetako urteko diru sarreren bolumena urtero areagotuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIak aurreko urte naturalean izandako aldaketaren arabera.

11. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN kontratugile profilean argitaratuko da.

Esleipena VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN kontratugile profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN kontratugile profilean argitaratuko da.

Profil hori honako web-orri honetan dago eskuragarri: www.donostiakultura.com.

12. GAITASUN BALDINTZAK

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREkin kontratatatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduerak esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREkin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoko pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagozkien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREkin kontratatatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzariako eta tekniko edo profesionalerako gutxieneko baldintzak

- **Azken hiru (3) ekitaldietako bakoitzean, kontratuaren xedeak erreferentzia egiten dion ostalaritza-zerbitzuak egiten gutxienez 700.000 euroko guztizko negozio bolumena edukitzea.**

Eskatutako kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritzeko asmoa duten lizitatzailleek, haiekin edozein motatako lotura juridikoa dutela ere, notario aurrean sinatutako idatzia aurkeztu beharko dute (**VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera). Horretan, dagokion enpresak honako hau adieraziko du: lizitatzaila aurkezten deneko lizitazioaren baldintzen jakitun dela beren hedadura osoan; adierazitako kaudimena duela (horren egiaztatzea aurkeztuko du, **13. klausulan** jasotako eran); eta, esleipendun suertatuz gero, lizitatzaila horren eskura kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko asmo ezeztazina duela, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta (Administrazioak berariaz baimendu beharko du hura ordezkatu edo aldatzea). Idatzi hori aurkeztuz gero, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaila hori esleipendun suertatzen bada.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamena aurkezteko 45 egun naturaleko epea izango da, azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar lizitatzailleak agiri hau bere osotasunean eta baldintzarik gabe onartzen duela, bai eta gainerako kontratu dokumentazioa ere, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta baldintza teknikoaren agiria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio plaza, 1, 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara (neguko ordutegian izan ezik: 9:00etatik 13:00etara), azken lizitazio iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Dagozkion proposamenak egiteko, interesdunek instalazioak bisitatu ahal izango dituzte. Ondorio horietarako, eskaintzak aurkezteko epearen barruan, interesa duen edonork donostiakultura@donostia.org posta elektronikoko helbidera eskabidea bidali beharko du, eta bisitaldirako deia egingo zaio hurrengo hiru egunen barruan, posta elektroniko bidez. Horretan, bisitaldiaren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

Lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatzailleek HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C) DONOSTIA KULTURAREN adierazitako bulegoetan, erregistro ordutegian (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan izan ezik: 9:00etatik 13:30era), klausula honen lehen paragrafoan ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan, ondoren aipatuko den dokumentazioa sartuko dute, eta guztietan jarriko dute xede duten kontratazioa, enpresaren izena,

proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta izaera, telefono zenbakia eta fax zenbakia, eta posta elektronikoaren helbidea. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten duten bidea adieraziko da, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondoren datorren paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzailleek proposamena postaz bidaltzen baldin badute, bidali izanaren eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza bidali dutela adierazi beharko diote DONOSTIA KULTURari telex, fax (ondorengo zenbakira: 943481189) edo presazko telegrama bidez egun berean. Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da (donostiakultura@donostia.org helbidera). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eranstea.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko.

Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

A gutun azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

a) Lizitatzaillearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

1. Lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (agiri horietan zehaztuko dira haien jarduerari buruzko arauak). Agiri guztiak dagokien erregistro publikoan behar den bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren izaeraren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetoako enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo

zinpeko aitopen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Ordezkarari gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzeko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatu beharko dute. Ordezkarari edo ahalduz horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkideak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBaren 60.1 artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez egotearen erantzukizunpeko aitopena, **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Aitopen horretan, indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatearen berariazko erantzukizunpeko aitopena barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatuak aipatutako baldintza betetzearen egiaztapena aurkeztu beharko du, eta horretarako 5 egun balioduneko epea edukiko du, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK xede horrekin bidaltzen dion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

3. Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren, eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, **12. klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta tekniko edo profesionala egiaztatzeko, itxitako azken hiru ekitaldiei dagokien sozietateen gaineko zergan aitortutako negozio zifra garbiaren zenbatekoa aurkeztuko da. Lizitatzailleak bestelako jarduerak egiten baditu, ostalaritza zerbitzuei dagokien negozio zifra adierazi beharko du aitorten erantzule baten bitartez. Edonola ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio gehigarria eskatzeko.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario akta aurkeztuko da (**VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera), lizitatzailleak, eskatutako kaudimena egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi badu.

5. Kontratua gauzatzeko enplegatzen diren langileei Gipuzkoako Ostalaritzako azken Hitzarmen Kolektiboko lan eta lansari baldintzak aplikatzeko konpromisoa adierazten duen aitorten erantzulea (X. eranskineko ereduaren arabera)

5. Atzerriko enpresek berariazko aitortpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

6. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

7. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko aitortpena, **V. eranskinaren** arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleak, bestalde, Erregistroaren ardura duen legelariak luzatutako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean eskatutako dokumentazioaren ordeiz.
- (ii) VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio gehigarria eskatzeko.
- (iii) Enpresa atzerritarrek aurkezten duten dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita egongo da.

B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitatzailleek proposamen teknikoari buruzko gutun azal bat aurkeztuko dute, honako dokumentu hauek bilduko dituenak:

- a. Deskribapen memoria. Kafetegia eta loturiko guneak ustiatzeko eta aipatutako zerbitzuak kudeatzeko modua deskribatuko du, honako alderdi hauek barne hartuta, gutxienez:

- Planteamendu orokorra: Zerbitzuaren ustiapena eta bultzatu beharreko giroen filosofia eta ikuspegia.
- Egin beharreko zerbitzuak.

1. klausulan ezarritakoarekin bat etorritik, eskaintako zerbitzuen artean, nahitaez, taberna kafetegikoak eta edaritegikoak sartu beharko dira.

Zerbitzuen deskribapenean, zerbitzu bakoitzaren egutegia eta irekitze ordutegia adierazi beharko dira. Ildo horretatik, gutxienez, baldintza teknikoen agiriko **4. klausulan** ezarritako ordutegia errespetatu beharko da.

- Eskaini beharreko produktuen eta jendearentzako prezioen zerrenda.
- Kontratua gauzatzeko atxikitako giza baliabideak eta horien curriculumak, baldintza teknikoen agiriko **8. klausularen** arabera; langileen organigrama eta antolamendua (lan egutegia, ordutegia, soldata, lanaldiaren deskribapena, kategoriak, lan txandak, lanegunetan eta jaiegunetan dauden langileak, horiek estaltzeko prozedura, lanaren arloan indarrean dauden xedapenen arabera, etab.).

- b. Kontratua gauzatzeko atxiki beharreko ekipamendua.

Enpresa lizitatzailleek, euren proposamen teknikoan, ostalaritza hornidurako proiektu baloratu bat aurkeztu beharko dute (altzariak, makineria, musika tresneria, baxera, beirateria, mahai zapiak, ezpainzapiak, etab.), bai eta zerbitzua behar bezala egiteko dekorazioa ere; baldintza teknikoen agiriko **2. klausulako** 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

- c. Hobetzeko eta berritzeko proposamenak. Hobekuntzat hartuko da lokalen zoruak eta pintura berritzea.

Gutun azal honen dokumentazioaren jatorrizkoa edo kopia aurkeztu ahal izango da. Hala ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK, eskaintzak baloratzeko garaian, lizitatzailerei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako informazioaren egiazkotasuna ziurtatzeko.

C gutun azala.- "EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA"

Ustiapenaren ekonomia eta finantza plana, kontu mailan (hiru digitu) banakatuta aurkeztutakoa, Kontabilitate Plan Orokorren arabera. Ekonomia eta finantza planak kostu kontzeptu guztiak jaso beharko ditu, eta bat etorri beharko du urteko kanon proposamenarekin eta kafetegia eta loturiko guneak ustiatzeko, eta aurreko a) letran zehazten diren zerbitzuak emateko eraren deskribapen memoriarekin. Memoria hori aurreko ataleko a) letran dago jasota (B gutun azala.- "Proposamen tekniko"). Aurreikuspenean jasotako zifrei buruzko azalpenak eta oharra egin beharko dira, eta zehatzak izan beharko dute, behar bezala ulertzeko.

Ekonomia eta finantza plan horretatik ondorioztatu beharko da bertan jasotako gastuen eta diru sarreraren arrazoizkotasuna lehen hiru urteetarako. Aurkeztutako zifretara iristeko ezintasun nabaria edota proposamenarekiko koherentziarik eza eskaintza baztertzeko kausa izango dira.

D gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Honako dokumentu hauek edukiko ditu proposamen ekonomikoak:

- **IV. eranskin** gisa txertatzen den eredura egokitutako proposamen ekonomikoa.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK, esleipena esleitu aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B, C eta D gutun azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izango du, baita baldintza teknikoaren agirian eska daitezkeen dokumentuena ere. Kontratistak aurkeztutako datuetan edo inguruabarretan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabetu ahal izango da, hari egozteko moduko arrazoen ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzaileek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak, dagokien haztapenaz adierazita, honako hauek dira:

Proposamen teknikoak: 60 puntu arte

- a. Kafetegia eta loturiko guneak ustiatzeko eta aipatutako zerbitzuak kudeatzeko modua deskribatuko duen memoria: 30 puntu arte.

Agiri honen 13. klausulako B "Proposamen tekniko" gutun azalaren edukiri buruzko a) letran bildutako alderdiak baloratuko dira.
- b. Kontratua gauzatzeko atxiki beharreko ekipamendua: 15 puntu arte.
- c. Hobetzeko eta berritzeko proposamenak. Hobekuntzat hartuko da lokalaren zoruak eta pintura berritzea: 15 puntu arte.

Proposamen ekonomikoa: 40 puntu arte

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak irizpide automatiko gisa baloratuko dira honako formula honen bitartez:

$$P = \frac{\text{Baloratzen den eskaintzaren zenbatekoa}}{\text{Onartutako eskaintza altuenaren zenbatekoa}} \times \text{tarteko gehieneko puntuak}$$

TARTEA	DIRU SARREREN BOLUMENA (BEZa kanpo)	KANONA (BEZa kanpo)	Gehieneko puntu kopurua
1	900.000 eta 999.999 euro bitartean	gutxienez % 5,5	8 puntu
2	1.000.000 eta 1.099.999 euro bitartean	gutxienez % 6,0	12 puntu
3	1.100.000 eurotik aurrera	gutxienez % 7,0	20 puntu

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Zerbitzu Orokorretako Sailaren ordezkari batek
- Produkzio zuzendariak
- Produkzio Saileko teknikari batek

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea eman ahal izango da, gehienez ere, lizitatzailerak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Jarraian, B gutun azala irekiko da, proposamen teknikoa biltzen duena, berori aztertu eta baloratzeko.

Horren ondoren, C gutun azala irekiko da, ekonomia eta finantza plana biltzen duena, berori aztertzeko. Ekonomia eta finantza plana ez da ez puntuatuko, ez baloratuko; baina, hura aztertuz gero eskaintzarekin bat ez datorrela ondorioztatzen bada, lizitaziotik baztertuko da.

Azkenik, D gutun azalean jasotako proposamen ekonomikoen irekiera jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaizkie onartutako lizitatzailerak guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak jasotzeko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Dichas circunstancias se publicarán, asimismo, en el perfil de contratante (www.donostiakultura.com) con una antelación mínima de 48 horas.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren lizitatzailerak; betiere, horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoieta barne hartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, beheranzko ordenan sailkatuta eta **14. klausulan** ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza onuragarriena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailaren alde.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako lizitatzaila aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailari, eta lizitatzailak bost egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiria.

Esleipendunak ekonomia jardueren gainera zerga (EJZ), kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela egiaztatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, uneko ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen erantzukizunpeko aitorpena gaineratu beharko da.

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Egindako eskaintzan konprometitutako baliabideak prest izatearen egiaztagiria.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarrearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkarrearen arduraduna edo ahalordea izendatu beharko da, eta nahikoa ahalorde edukiko du kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Agiri honen **21. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

- Aseguratzaillearen erantzukizun zibileko ziurtagiria, "Erakunde aseguratzaillearen ziurtagiria" izeneko **VII. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.
- Orri honetako 9. klausulari jarraiki, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren inbertsioengatik ordaindu beharreko diru kopuruaren egiaztagiria.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena erabakiko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta, edonola ere, proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzaillei jakinaraziko zaie, agiri honekin batera doan **II. eranskineko** ereduaren arabera eta, aldi berean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epearen barruan, lizitatzaillei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hasita.

Esleipendunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIaren kontratugile profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako kontratua formalizatzeko iragarkien gastuak.

19. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua enpresa kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk ez du inola ere abalik emango kontratu honen xede den ustiapena finantzatzeko esleipendunak hitzartu ditzakeen jesapen edo kreditu eragiketetarako. Era berean, ez du inola ere parte hartuko ustiapenaren **finantzaketan**, eta esleipendunari ez dio gutxieneko diru bilketarik edo etekinik ziurtatuko, ez eta edozein motatako diru laguntzarik emango ere.

Klausulei, agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian adierazitakoari, eta kontratistak aurkeztutako eskaintzari hertsiki lotuta gauzatuko da kontratua, baita, **kontratuaren interpretazio tekniko**a egitean, **VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk** kontratistari eman diezazkikeen jarraibideen arabera ere.

Kontratua VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuta gauzatuko da. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratuko betebeharrak zuzen

betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko, bai eta lana kalitate maila egokiarekin egiten dela egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Kontratistak konpromisoa hartzen du, oro har, laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako arauak betetzeko eta, zehazki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren SEGURTASUN ARAU OROKORRAK betetzeko. Horiek langile propioei eta, hala badagokio, azpikontrataturakoei jakinarazi beharko dizkie. Era berean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk jardura mota kontuan izanda ezartzen dituen kontrol eta segurtasun neurri guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du.

Esleipendunak, era berean, zerga esparruko, lan esparruko, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentzioko indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, zerbitzua egiteko enplegatzen dituen langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek esparru horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eman beharko ditu.

Esleipendunaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak dira. Enpresa kontratugilearenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta ezin izango zaio VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzen diharduten langileekin -langile propioekin edo litezkeen azpikontratazioetako langileekin- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua egitean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

Azkenik, adierazi behar da kontratu honen gauzatzeak ez duela inola ere ekarriko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK inongo datu pertsonalik tratatzea.

Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu beharko da. Edonola ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duen araudian aurreikusitakotik esleipendunarentzat

sor daitezkeen betebeharrak bere gain hartu beharko ditu, tratamendu horren ondorio gisa.

Bereziki, esleipendunak informazioa eman eta interesdunen baimena jaso beharko du. Halaber, orri honi jarraiki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAri egingo dizkion datu-lagapenen ondorioz sortzen diren obligazioak bete beharko ditu.

Donostiako Udalak, bere iritzia araber, esleipendunari baimena eman ahal izango dio mahaiekin eta aulkiekin bide publikoa okupatzeko eraikinaren inguruetan, dagokion tasa ordainduz gero.

20. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Hona kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak:

- Kontratua bere klausuletan, agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratistari ematen dizkion jarraibideetan ezarritakora zorrotz lotuta betetzea.
- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kaltegalera guztiak ordaintzea.
- Kontratua gauzatzeko enplegatzen diren langileei Gipuzkoako Ostalaritzako azken Hitzarmen Kolektiboko lan eta lansari baldintzak aplikatzeko konpromisoa betetzea.
- Lan eta zerga esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, ordainsariak, etab.), bai eta Gizarte Segurantzakoak, eta laneko segurtasun eta osasunekoak ere. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA salbuetsita egongo da ez betetze horren erantzukizunetik.
- Kontratistak eta kontratua gauzatzen duten pertsonak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan ematen dituen jarraibideak betetzea.
- Langile guztiak behar bezala kontratatuta egongo dira eta alta emanda Gizarte Segurantzaren kontratistaren kontura soilik, eta ez da inolako lotura juridikorik egongo langile horien eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren artean, ez kontratuaren indarraldian, ez inoiz.

Edozein unetan eska diezaioke VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk esleipendunari lan kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia.

Langile horiek ez dute lan loturarik ez eta beste mota bateko loturarik edukiko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin, eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA ez da subrogatuko kontratistaren eta haren langileen arteko kontratu harremanetara.

- Eskaintzan proposatutako urteko kanona ordaintzea, agiri honen **9. klausulan** aurreikusitako hileroko kanona ordaintzeko betebeharraren kalterik gabe.
- Proposamenean hitzartutako bitartekoak atxikitzea kontratura.

- Kontratuaren xede diren Antzokiaren eremuak eta, hala badagokio, catering zerbitzuak egiten direneko eremuak eta altzariak ere funtzionamendu, garbitasun eta kontserbazio egoera egokian mantentzea. Kontratistaren kontura izango dira beharrezkoak diren konponketak eta lanak, horien zenbatekoa edo kausa edozein dela ere. Gainera, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN iritzian esleipena amaitzean akatsak dituzten materiala eta instalazioak berritzera behartuta egongo da.
 - Eraikinaren estetikari eragiten dion edozein obra, instalazio edo aldaketa egiteko (errotuluak barne direla), aldeztu aurretik, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN baimena beharko da.
 - Agiri honen **25. klausulan** adierazitako aseguru polizak egitea eta mantentzea.
 - Eragozpenik ez jartzea ospakizun, ekintza edo ikuskizunak antolatzean. Ildo horretatik, hori dela eta, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eman ditzakeen jarraibideak betetzea, eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARENGANDIK jasotako programazioaren eta jarraibideen arabera zerbitzugintza egokitzea.
 - Kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak bere kontura lortzea. Halaber, enpresa kontratistak zerbitzua egiteko dituen gastu guztiak estali beharko ditu, eta mota orotako tasak eta zergak, jarduera garatzeagatik dagokion zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen zerga guztiak.
 - Zerbitzuak bere proposamen teknikoen adierazitako egunetan eta ordutegian egitea. Gutxienez, baldintza teknikoen agiriko **4. klausulan** eskatutako egunak eta ordutegia bete beharko ditu.
 - Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatuko ez balira, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskumena izango luke zerbitzuak estaltzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, kontratu horien zenbatekoak fakturaziotik kenduko dira.
- Greba garaian benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.
- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten egitekoa eta horren iraupena edozein direla, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean arreta nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK horretarako eskaera egiten duenetik gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.
 - Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarrenagatik izaten diren bajak estaltzeko; kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean egingo dira ordezkapenak.

- Prezioak eta ordutegiak aldatzeko nahitaz baimena eskatzea.
- Kontratazioaren xede diren zerbitzuak behar den bezala eskaintzeko atxiki eta/edo aurkeztu beharreko material informatikoa (hardwarea eta softwarea) erabiltzeko/ustiatzeko, baita edozein motatako ekipa eta/edo bitarteko osagarri erabiltzeko/ustiatzeko ere, iturri baimenduak eta beste edozein baimen eta eskubide lortzea, eta bere kontura hartzea, Orri honetan eta kontratazioa arautzen duten Baldintza Teknikoen Orrian ezarritakoa betez.

Gauzak horrela, esleipendunaren erantzukizuna da elementu horien erabilera baketsua ziurtatzea, baita kontratazioaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko elementu horien gainean eskubide nahikoen titulartasuna ziurtatzea ere, Orri honetan adierazitakoaren arabera. Edozein kasutan, esleipendunaren erantzukizuna dira kontratutik kanpoko hirugarrenek Jabetza Intelektualaren eta/edo Industrialaren gainean egin ditzaketen erreklamazioak, eta bere betebeharra da kontzeptu horiek direla eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK jasan ditzakeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaintzea aipatutako erakundeari.

- Kontratu honen xedearen izaera kontuan hartuta (soinu-ekipoen erabilera eta musika-lanen erreproduzio publikoa barne hartuta), esleipendunaren betebeharra da, Jabetza Intelektualari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera, egile, editore eta/edo Jabetza Intelektuala kudeatzeko erakundearen aurrean dagozkion obligazioak betetzea. Halaber, bere gain hartuko ditu kontratazioaren xede diren zerbitzuak eskaintzeagatik aipatutako guztiei egin beharreko ordainketak.
- Emakida VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren alde egitea eta kontratuaren indarraldian eskubide nahikoa edukitzea bere izen komertzial, marka eta/edo Jabetza Industrialeko antzeko beste eskubide eta/edo eskaerei dagokienez, aipatutako erakundeak, gaur egun ezagutzen diren bitarteko teknikoekin edozein euskarritan, ukigarritan zein ukiezinetan, horiek erreproduzitu eta publizitatea egiteko, korporazio-xedearekin erabiltzeko eta abar.
- Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak egitea (hala nola, lan edo informazio bileretara joatea), ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.
- Enpresa kontratistak aplikatzekoak zaizkion indarreko arau guztiak errespetatu beharko ditu. Bereziki, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoa, eta Donostiako Udalaren 2008-2013 Berdintasunerako II. Plana. Halaber, jarduera guztiak Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen esparruan garatuko ditu, bai eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren arabera ere.

SPKLTBaren 223.f) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, klausula honetan jasotako betebeharrak funtsezko kontratu betebeharrak izango dira. Beraz, horiek ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izango da, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK hala erabakitzen badu.

21. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratuaren esleipendunak, kontratua beteko duela bermatzeko, 49.500 euroko (BEZa kanpo) behin betiko bermea eratzeko betebeharra izango du.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak bost egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan era daiteke bermea.

Abal moduan eratuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Eskudirutan eratzten bada, 2101 0381 0900 1216 7102 Kutxako kontu korrontean egingo da.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk aldeko txostena egin ondoren itzuliko da bermea.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta 15 egun balioduneko epea izango du horretarako. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresaburuak 15 egun balioduneko epea izango du bermea berregokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Agiri honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

22. ZIGORRAK

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, irekitze ordutegiari dagokionez berandutzen bada, edo kontratatutakoa oker gauzatzen baditu nahiz kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratua deuseztatzea erabaki dezake, **30. klausulan** jasotako baldintzen arabera, edo kontratua gauzatzen jarrai dezala erabaki dezake. Azken kasu horretan, ondorengo ataletan jasotakoaren arabera bidezkoak diren zigorrak sortuko dira.

Ondorio horietarako, ez betetzea oso larritzat, larritzat edo arintzat kalifikatzearen arabera egongo da sortutako zigorren zenbatekoa.

Oso ez betetze larriek 4.000 euroko zigorra ekarriko dute. Oso ez betetze larritzat hartuko dira honako hauek:

- Bidezko arrazoirik gabe lokala uztea edo ez erabiltzea.
- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI ez laguntzea Antzokian programazioak daudenean.
- Lokala eta horren instalazioak baimendu gabeko erabileretara zuzentzea.
- Kanona bi hilabetez jarraian ez ordaintzea.
- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN alde aurreko baimenik gabe, eraikinaren estetikan edozein aldaketa ekar dezaketen obrak, instalazioak edo aldaketak egitea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko atala behin eta berriz ez betetzea.
- Edukiera-arauak ez betetzea.
- Bi hutsegite larri egitea.

Ez betetze larriek 2.000 euroko zigorra ekarriko dute.

Ez betetze larritzat hartuko dira honako hauek:

- Eraikinaren erabileran, gastu handirik ekarriko ez duten aldaketak edo hobekuntzak egiteari dagokionez, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN aginduak ez betetzea.
- Agiri honetan kontratistarentzat ezarritako betebeharrak ez betetzea dakarten guztiak, baldin eta oso larritzat kalifikatu ezin badira eta, motagatik, arintzat hartu behar ez badira; bereziki, garbitasun eta segurtasun betebeharrak alde batera uztea eta lokalen funtzionamendu eskaintzak ez betetzea.

Gainerako ez betetzeek, arintzat kalifikatutakoek, 500 euroko zigorra ekarriko dute. Bezeroekiko tratu adeigabea ematea eta zerbitzuak oker egitea.

Nolanahi ere, klausula honen babespean eska daitezkeen zigorrak metagarriak izango dira, benetan eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada ere, berandutzearen, zerbitzua oker egitearen nahiz kontratuko beste edozein baldintzaren ondoriozko ez betetzeak iraun bitartean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK edozein unetan deusezta dezake kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Edonola ere, kontratua deuseztatu zein jarraitu erabaki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez kontratua gauzatzea erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

23. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak dagokion kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako kontratua behar bezala egiten dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin lotutakoa edo kanpoko.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

24. KONFIDENTZIALITASUNA

Plegu honetan esleipenaren publizitateari buruz eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruz xedatzen denari kalterik egin gabe, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk ezingo du enpresa kontratistak emandako informazioari zabaldu, baldin eta kontratistak konfidentzialtzat jo badu edo jotzen badu.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada. Konfidentzialtasun behar horri etengabe eutsiko zaio informazio hori ezagutzen den unetik.

25. ASEGURUAK

Enpresa esleipendunaren ardura izango dira kontratua gauzatzean eragindako kalte-galera guztiak, izaera eta bolumena edozein delarik.

Kontratuan ezarritakoa gorabehera, enpresa esleipendunak, kontratuak irauten duen aldi osorako, izan daitezkeen gertaerak estaltzeko, sor daitezkeen kalte-ordainez arduratzeko nahikoa izango den aseguru poliza kontratatuko du bere kontura soilik.

Aseguru horren bermeen kalte-ordainetarako muga ez da 600.000 euro baino gutxiago izango ezbehar bakoitzagatik.

Esleipendunak kalteak eragiten baditu VICTORIA EUGENIA ANTZOKIaren edo bere ondasun edo langileen gainean, polizan kalte-ordaina jasoko duten hirugarrenen multzoan sartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarren bati, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIari edo bere ondasun edo langileei eragiten bazaizkie, aseguraturatzat joko dira guztiak erantzukizun zibilaren polizaren barruan.

Edonola ere, enpresa esleipendunaren kontura izango dira aseguru bakoitzaren frankizien zenbatekoa eta ezbeharrengatik ordaindu beharrekoa, bai eta ezbeharren zenbatekoa ere, aseguru polizan ezarritako mugak gainditzen diren kopuruan. Era berean, bere kontura izango dira polizak estaltzen ez dituen hirugarrenentzako kalte-ordainak eta kalteak.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak bost egun baliodun edukiko ditu, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIaren errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, erantzukizun zibilaren aseguratzaillearen ziurtagiria aurkezteko, "Aseguru-erakundearen ziurtagiria" izeneko **VII. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

2. Enpresa esleipendunak bere kontura mantenduko ditu jarraian adierazitako estaldurak, kontratua gauzatzen den bitartean, gutxienez, eta egin beharreko lanetarako eta/edo zerbitzuetarako:

- Enpresa esleipendunak eta azpikontratistek, egonez gero, Gizarte Segurantzaren alta emanda edukiko dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzuak egiten parte hartzen duten pertsona guztiak. Halaber, kasuan-kasuan sektoreko hitzarmenetan zehaztutako bizitza eta istripu aseguruetakako eskakizunak beteko dituzte.
- Enpresa esleipendunaren kontura izango dira edozein parte hartzailearen instalazio, makina, tresneria eta ondasunen gainean eragindako kalteak, kalte pertsonalak barne hartuta.

3. Aipatutako aseguruaren kontratazioak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak gainerako kontratuzko zehaztapenen arabera bere gain hartu dituen betebeharrak eta erantzukizunak. Kontratugilearen erantzukizun primarioa eta zuzena ere ezingo da murriztu, arindu edo aseguratzaileren baldintzetara edo jardunetara subrogatu.

4. Kontratuaren indarraldian, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK esleipendunari eska diezaioke lehen aipatutako aseguruaren dokumentazioa aurkezteko, edo polizen kopia aurkezteko. Halaber, primen ordainketa egunean duela ziurtatzeko eska diezaioke, eta esleipendunak errekerimendu hori betetzeko betebeharra du.

5. Aseguru propioak kontratatzeako baldintzak ez betetzea, lehen eskatutakoaren arabera eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren gogobetetzeaz, kontratu hutsegite larritzat joko da eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskubidea erreserbatzen du esleipendunaren kontura eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren gogobetetzeaz kontratatzeako kontratatu gabe dauden aseguruak, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ezarritako epeen barruan.

6. Esleipendunarentzat ezarritako betebeharrak berak kontratatutako azpikontratistei ere dagozkiela ulertu behar da, eta, oro har, kontratua gauzatzen parte hartzen duten guztiak. Ondorioz, betebeharrak horiek guztiak jakinarazi eta kontrolatuko dira.

26. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango zaizkio, baldin eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege betebeharrak eta agiri honetan VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeako debekurik izango. Gainera, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko ditu, eta haren eskaintzan jasotako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzeko konpromisoa hartu beharko du. Hori guztia lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren zerbitzugintza azpikontratatu ahal izango da, baldin eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz.

Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege betebeharrak eta agiri honetan VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko ditu, eta haren eskaintzan jasotako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzeko konpromisoa hartu beharko du. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokionez.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. KONTRATUA ETETEA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratua etetea erabakitzen badu edo SPKLTBaren 220. artikuluko 5. atalean xedatutakoa (aplikatu beharrekotzat ezartzen da berariaz) aplikatuta kontratua eteten bada, akta idatziko da eta, bertan, kontratua etetea ekarri duten inguruabarrak eta berori gauzatzearen egitatezko egoera azalduko dira.

Etetea erabakita, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratistari benetan izandako kalteen ondoriozko kalte-galerak ordainduko dizkio.

30. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua deuseztatzeke kausa izango dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe-, b), c), d), f), g) eta h) letretan jasotakoak eta, oro har, kontratuzko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua deuseztatzeke aurreikusitako edozein kasutan, hura automatikoki deuseztatuko da; nahikoa izango da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk enpresa kontratistari hartutako erabakiaren jakinarazpen fede emaila bidaltzea.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez bidezkoak izan litezkeen beste edozein arrazoiengatik kontratua deuseztatzean eragin litezkeen erantzukizun ekonomikoak, kontratua eraginkortasunez deuseztatzean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Salbuespen moduan, kontratua iraungitzean (kontratuaren epea amaitzeagatik nahiz kontratua deuseztatzeagatik), esleipendunak kontratua gauzatzen jarraitu beharko du, kontratuan ezarritako baldintza berberetan, baldin eta esleipen berririk egin ez bada, eta esleipen berri bat egin bitartean.

31. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungitzean (kontratuaren epea amaitzeagatik nahiz kontratua deuseztatzeagatik), esleipendunak egindako inbertsioak eta erosketak, bai instalazioetan, bai ostalaritza ekipamenduan (altzariak, makineria, musika tresneria, baxera, beirateria, mahai zapiak, ezpainzapiak, etab.), VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARENak izatera pasatuko dira, doan, eta kontratistak ez du kalteordain eskubiderik izango.

Kontratua elkarren adostasunez deuseztatzen bada, aldeen eskubideak haiek baliotasunez hitzartutakora egokituko dira.

Esleipendunak kontserbazio eta funtzionamendu egoera egokian entregatu beharko du lokala ostalaritza ekipamenduekin batera, eta zerbitzugintzarako berez ez diren haren jabetzako elementu higigarriak kenduko ditu, bai eta gordeta lituzkeen dituen jakiak eta edariak ere, bi egun balioduneko epean gehienez, zerbitzuak egiteari uzten dion egunaren biharamunetik hasita.

Instalazioen eta ostalaritza ekipamenduaren egoerak hiru hilabeteko berme epea izango du. Epe hori itzultze datatik edo VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN onespen datatik aurrera hasiko da.

Berme epea amaitzean, bidezkoak diren erreklamazioak egiaztatuko dira eta, behin betiko bermearen gainean gauzatu beharreko erantzukizunak ez badira, behin betiko bermea bertan behera uzteko erabakia hartuko da.

32. JURISDIKZIOA

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren prestakuntzari, eslepeinari, onorioei, eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Donostian, 2013ko azaroaren 7an


Victoria Eugenia Antzokia, S.A.
Amaia Almirall
Kudeatzailea